

Erkiaga

Bilbon, 1972 Urrillaren 7-an.

Agur, adiskide:

Lizundia jaunak jakiñarazi dit Tx. Agirre eleberri Sariazko lau lanei buruzko iritzia igorri duzula, epaillle bezala.

Nik ere irakurri ditut lau lanok (ta nolako nekea "Harremanak" delako gertari bikoitza burutzeko!) eta ene ustez, sari-garri dena hauxe da: "Haurgintza minetan" - GILTZA: Baturantz.

Horrela emanen dut ene iritzia, lan hau argitaragabea dela uste izanik. Ezpaita batere goxo azken sariketan gertatua berri-ro ere gertatzerik; alegia, lan argitara emanari, eman ziotela saria.

Elkarrekin egoterik agian ez bagendu, arren, idatz egidazu lehenbailehen, eta honela, zure ta bion iritzia jakiñen dugu; irugarrena, artean, jakiteke, noski.

Milla esker, eta laster arte, Jainkoa lagun,

Erkiaga